Konposizioa eta Inprobisazioa II

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

- Sorkuntza- eta adierazkortasun-gaitasunak garatzea gorputz-hizkuntzak erabiliz, interpretazioari nahiz inprobisazioari dagokionez.
- Sorkuntza-prozesuei hurbiltzea ahalbidetzen duten tresnak ezagutzea, hasi inprobisazioa mugimenduaren azterketaren ikasketatik harik eta inprobisazioaren oinarri diren printzipio, teoria eta funtsekin osatu arte ikasleen prestakuntza.
- Konposizio koreografikoaren eta eszenikoaren moldeetan eta kode estetiko eta estilistiko ezberdinen arabera garatutako tekniketan sakontzea, aurkezpen-formatu ezberdinak ezagutuz edo esperimentatuz.
- Sorkuntza koreografiko eta eszenikoari aurre egiteko moldeetara hurbiltzea eta sorkuntza-prozesuak ezagutu edo esperimentatzea diziplina artistiko ezberdinetako sortzaileekin egin topaketen bidez, zeinek dantza, gorputza eta mugimendua erabiltzen baitute euren diskurtso formalean.
- Koreografoen eta sortzaileen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak. Sorkuntza pertsonala interprete/koreografo gisa.

Oharrak: Konposizioa eta Interpretazioa I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

Konpetentziak:

- Inprobisazioko, sorkuntzako eta konposizioko teknikak ezagutzea.
- Mugimenduaren osagai eta alderdi kualitatiboak behatu eta aztertzea.
- Inprobisazioko eta konposizio koreografikoko teknikak aplikatzea, lan eszenikoen interpretazioan eta sorkuntzan.